

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO = JASANGARRITASUNA

Horixe da Getxorentzat nahi duguna: jasangarritasuna ingurumenean, jasangarritasuna gizartean eta jasangarritasuna ekonomian. Getxon bizi-proiektu bat garatu nahi dugu.

FB orria: EAJ PNV Getxo / EAJ PNV
Instagram: @eajpnvgetxo



HOBKUNTZAK GOBELAKO INSTALAZIOETAN



Gobelako kiroldegiak itxura tamalgarrria du. Itxura ez ezik, instalazioak ere hobetzeko lanak egin behar dira premiaz. Gobernu-taldearen utzikeria ikusita, Getxoko Alderdi Popularrak proposatu nahi du Gobelako zelaia aldatzeko, bazkide eta erabiltzaileek aspalditik eskatzen dutenari erantzute aldera, bai eta aldagelak, korridoreak nahiz erabilera anitzeko gelak eraberritzeko

ere, egoera penagarrian baitaude, hezetasunekin eta hondatutako guzuekin. Kanpoaldean, berriz, bizikletak kargatzeko puntu bat jartzea nahi dugu, erabiltzaileek bizikletak konektatu ditzaten kirola egin bitartean. Azkenik, hiri-mikrobusen bi linea jartzea nahi dugu, kirol-instalazioak Getxoko auzo guztiekin konektatuta egon daitezzen. #esnatuGetxo

ehbildu LEGEGINTZALDI HONEN BALANTZEA

Legegintzaldi amaierara iristen ari gara, eta EH Bildutik azken lau urteetako balantzea egiteko aprobetxatu nahi dugu. Instituzionalki lau urte hauek zailak izan dira: EAJ eta PSE-ren gehiengo absolutua pairatu dugu, eta oso zaila izan da testuinguru honetan akordioak lortzea, nahiz eta saiatu garen. Hamaika proposamen aurkeztu ditugu (Getxobusa martxan jarri, ondare historikoa zaindu, Alangoko gasolindegia zaharrean gune artistikoa sortu, "Getxo Abentura" gunea Errotatxun...) baina guztien kontra egin du Udal Gobernuak. Eta onartzea lortu dugunak (Txiki Otaegiko lur azpiko aparkalekuan alokairu sistema merkea auzokideentzat, indarkeria matxistaren kontrako seinaleak...) ez dituzte martxan jarri.

Lau urte hauetan inposaketa izan da nagusi, HAPO berriaren onarpenean eta Lope de Vegako eraikinen eraiketean ikusi ahal izan dugun bezala.

Gauza bera gertatu zaie gure herriko elkarte eta mugimendu sozialei, gero eta zailagoa baita Getxon jarduerak antolatzea, Udalaren trabak direla medio. Horren adibide bi topatu ditugu asteburu honetan bertan: Gaztetasuna taldeak antolatutako protesta (gazte aisialdirako espazio duinak aldarrikatzen) edota Eutsi Romok antolatutako jai-eguna.

Lau urte zailak izan diren arren, ez dugu galdu ilusioa eta konpromisoa. Aurrera goaz! Ondo pasa Getxoko jaietan!

PSE-EE
PSOE

GETXON GARAPEN EKONOMIKO JASANGARRIAREN ALDE

Getxok erronka izugarriari egin beharko dio aurre hurrengo urteotan, **garapen ekonomikoari** dagokionez. PSE-EEko kideok uste dugu ezinbestekoa dela **Getxok aurrera egitea eta esparru horretan haztea, getxoztarron ongizate ekonomiko eta soziala** hobetzen jarraitu ahal izateko. Proposatu nahi dugu orain eta etorkizuneko beharrezkoak aintzat hartuta egitea; izan ere, **tokiko hazkuntza ekonomiko modu jasangarrian** babestuko duten politikak bultzatu behar ditugu, betiere **ekonomia zirkularra** nahiz enpresa-politika berdea sustatuz. Hartara, beharrezkoa da benetan progresiboa den fiskalitatea izatea, **aberasta-**

sunaren banaketa bidezkoagoa izan dadin, desberdintasunak murriztu daitezzen, eta zerbitzu publikoak jasangarriak izateko. Horretarako, erronka berrietara moldatu behar gara, eta merkataritza oro har nahiz merkataritza getxoztarrak babestu behar ditugu: tokiko politikek eraldaketa digitala bultzatu behar dute, eta **erretiroa hartuko den kasuetan negozioen eskualdaketa sustatu**, gure udalerriko **tokiko merkataritza tradizionala zaintze aldera**. Horrez gain, uste dugu erakunde publikoetan **gazte-entregua sustatu** behar dugula, gazteen kontratazioa lagunduz eta **tokiko esparrutik ekintzaitza** bultzatuz.



PUBLIKOAK, DUINA ETA KALITATEZKOAK DEN HEZKUNTZAREN ALDE

Elkarrekin Getxo taldeko kideok eztabaida-solasaldia izan genuen aurreko astean, hezkuntza publikoaren lege-proiektuari buruzkoa, eta Eusko Legebiltzarrean Elkarrekin Podemos-IU taldeko bozeramaile den Miren Gorrotxategik hartu zuen parte. Ekitaldi horretan, agerian geratu zen hezkuntza publikoaren krisiak eragin handiena izango duen euskal udalerrietako bat dela Getxo, eskola-segregazio handia

baitago eta plaza publikoak falta baitira, bereziki haur-eskoletan; urteak garamatza hori salatzen. Hezkuntza Lege berriaren zirriborroa eztabaidatu zen, eta are gehiago larriagotuko da egoera hura aplikatuz gero. Eskola publikoaren bikaintasuna aniztasunean oinarritu behar da, eta gizartearen isla izan behar da, aniztasuna txertatu eta onartzeko balioekin. elkarrekinpodemos@getxo.eus